LANKIDETZA-HITZARMENA, URUGUAIKO ERREPUBLIKAKO UNIBERTSITATEA ETA ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUAREN ARTEAN

Donostia-San Sebastián, 2014ko apirilaren 14a.

BILDURIK

Alde batetik, M. Aitzpea Goenaga Mendiola andrea, Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria.

Bestetik, Rodrigo Arocena, Errepublikako Unibertsitateko errektorea eta Álvaro Rico doktore jauna, Giza eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Dekanoa.

PARTE HARTU DUTE

Lehendabizikoa, Etxepare Euskal Institutuaren izenean eta haren ordezkari izanik, Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria izendatzen duen ekainaren 1eko 151/2010 Dekretuak eman zizkion ahalmenekin bat.

Bigarrenak, Uruguaiko Errepublikako Unibertsitatearen izenean.

ADIERAZI DUTE

Errepublikako Unibertsitatea, irakaskuntza, ikerkuntza eta hedapen funtzioak betez eta egiten duen gizarte lanarekin bat etorriz, baliabide propioekin kulturen garapenari ekarpena egin nahi dion erakundea dela; horien artean, euskara. Era berean, ikasleen trukea errazten duela atzerriko unibertsitateekin dituzten lankidetza-hitzarmenen aldetik.

CONVENIO DE COLABORACION ENTRE LA UNIVERSIDAD DE LA REPÚBLICA Y EL INSTITUTO VASCO ETXEPARE

Donostia-San Sebastián, 14 de abril de 2014.

REUNIDOS

M. Aitzpea Goenaga Mendiola, directora del Instituto Vasco Etxepare.

De otra parte, Rodrigo Arocena, rector de la Universidad de la República y el Dr. Álvaro Rico, Decano de la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación.

INTERVIENEN

La primera, en nombre y representación del Instituto Vasco Etxepare, de conformidad con el Decreto 151/2010, de 1 de junio, por el que se nombra Directora del Instituto Vasco Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute.

Los segundos, en nombre y representación de la Universidad de la República Oriental del Uruguay.

CONSIDERANDO

Que la Universidad de la República es una institución que en el cumplimiento de sus funciones de enseñanza, investigación y extensión y de su labor social, desea contribuir al desarrollo de las diferentes culturas y lenguas, entre ellas el euskera y que también facilita el intercambio de estudiantes en el marco de convenios de colaboración con universidades extranjeras.

Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute Sortzeko eta Arautzeko den apirilaren 20ko 3/2007 Legearen, eta Etxepare Euskal Institutua / Basque Instituteren antolakuntza- eta jarduera-araudia onartzen duen maiatzaren 13ko 88/2008 Dekretuaren arabera, euskara eta euskal kultura, bere hizkuntza ofizialetako edozeinetan eta zeinahi adierazpen, euskarri, bide eta adierazmoldetan, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo sustatzeko, hedatzeko eta proiektatzeko eskumenak Etxepare Euskal Institutuari dagozkio.

Bi aldeek, izan nahi dituzten harreman instituzionalen baitan eta euskal hizkuntza, literatura eta kulturaren alorreko elkarlan pedagogiko eta ikerkuntzakoa finkatzeko, erabaki zuten unibertsitate horretan euskal hizkuntza eta kulturari buruzko irakurle-lanpostu bat ezartzea. Esperientzia horrek emaitza positiboa izan duenez, honen bitartez programari jarraipena eman nahi diote, ahaleginak bateratuz, hurrengo lau ikasturteetan (2014tik 2017ra biak barne) ere ezaguera horiek unibertsitate hartan sustatzen segitzeko.

Ondorioz, dagozkien eskumen eta prozedura arauak onartuta, alde guztiek dokumentu hau sinatzeko behar besteko gaitasun legezkoa elkarri aitortu diote. Hona

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Hitzarmenaren helburua.

Errepublikako Unibertsitatearen eta Etxepare Euskal Institutuaren arteko Lankidetza Hitzarmen honen helburua euskal hizkuntzaren eta kulturaren ezagutza euskararen eremura baino haratago eramatea da, beste herri batzuek gure kulturaren alderdirik

Que, de conformidad con la Ley 3/2007, de 20 de abril, de Creación y Regulación del Instituto Vasco Etxepare / Euskal Institutua / Basque Institute, y Decreto 88/2008, de 13 de mayo, por el que se aprueba el Reglamento de organización y funcionamiento del Instituto Vasco Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute, corresponden al Instituto Vasco Etxepare las actuaciones relativas a la promoción, difusión y proyección, fuera de la Comunidad Autónoma Vasca, del euskera y de la cultura vasca en cualquiera de sus lenguas oficiales, manifestaciones, soportes, medios y formas de expresión.

Que las dos partes, en el marco de las relaciones institucionales que desean mantener y con el fin de establecer una colaboración pedagógica y de investigación en el ámbito de la lengua, la literatura y la cultura vasca, alcanzaron un acuerdo para el establecimiento de un lectorado de lengua y cultura vasca en esa Universidad. Valorada positivamente la experiencia, mediante el presente adquieren el compromiso de continuar dicho programa durante cuatro cursos académicos, desde el 2014 hasta el 2017, ambos incluidos.

En su virtud y aceptando las normas de competencia y procedimiento que les corresponden, todas las partes se reconocen la capacidad legal necesaria para suscribir el presente documento, que se regirá conforme a las siguientes

CLÁUSULAS

Primera – Objeto del Convenio

Es objeto del presente Convenio la Colaboración entre la Universidad de la República y el Instituto Vasco Etxepare para el impulso del conocimiento de la lengua y la cultura vascas más allá de su propio ámbito para que otros pueblos puedan extender y ahondar en el conocimiento de los aspectos

esanguratsuenak ezagut ditzaten, eta dituzten ezagutza horiek sakontzeko modua izan dezaten.

Bigarrena.- Egin beharreko jarduerak.

Planteatutako lankidetza euskal hizkuntza eta kultura ikasketak egitea da Errepublikako Unibertsitateko Giza eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, baita gai horiekin lotutako beste jarduera batzuk garatzea, sustatzea eta zabaltzea ere; hala nola, mintegiak, hitzaldiak, jardunaldiak eta abarrekoak antolatzea.

Adierazitako jardueren barruan, egin beharreko lankidetzaren oinarrizko helburu gisa zehazten da Errepublikako Unibertsitateak euskara eta euskal kulturako irakurleen programari jarraipena ematea eta programa hori era egokian garatzea lau ikasturtetan (2014tik 2017ra arteko ikasturteak).

Datuak edota komunikazioak partekatzea edo trukatzea eskatzen duten jarduerak egin ahal izateko, unibertsitateak Giza eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen bidez egingo du eta Etxepare Euskal Institutuak bere izenean.

Hirugarrena.- Euskara sustatzeko neurriak.

I. Errepublikako Unibertsitateak, aurreko klausulak adierazitakoarekin bat, ondoko jarduerak egiten jarraitzeko konpromisoa hartuko du:

a) Giza eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, Atzerriko Hizkuntzen Zentroaren bitartez, euskal hizkuntza eta kultura irakurle postua sustatzea. Irakurlearen lana, batik bat, diziplina hura irakastea izango da, baita sustapenerako eta promoziorako jarduerak egitea ere, euskararen ezagutza zabaltze aldera.

más significativos de esta cultura.

Segunda – Actuaciones a desarrollar

La colaboración planteada se configurará a través de la realización de estudios de euskera y cultura vasca en la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación de la Universidad de la República, así como el desarrollo, promoción y difusión en la misma de otras actividades relacionadas con dichas materias, tales como la organización de seminarios, conferencias y jornadas, entre otras.

Dentro de las actuaciones señaladas, se determina como objetivo fundamental de la colaboración a desarrollar que la Universidad de la República dé continuidad al programa de lectorado en euskera y cultura vasca y lo desarrolle satisfactoriamente en la Universidad durante 4 años académicos (cursos 2014 a 2017).

Para el desarrollo de las actuaciones pertinentes que requieran el intercambio de datos o comunicaciones, la Universidad actuará por medio de la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación - y el Instituto Vasco Etxepare en su propio nombre.

Tercera – Medidas tendentes al impulso del euskera

I. Conforme a lo señalado en la cláusula anterior, la Universidad de la República asume el compromiso de continuar efectuando las siguientes actuaciones:

a) Impulsar en la Facultad de Humanidades y ciencias de la Educación, a través de su Centro de Lenguas Extranjeras, la figura del Lectorado de euskera y cultura vasca que se ocupará fundamentalmente de la enseñanza de las mismas y de llevar a cabo actividades de promoción y difusión encaminadas a promover su conocimiento.

b) Irakurle postuaren titularra irakasle moduan hartzea, unibertsitateko estatutuek eta indarrean duten legediak dioenarekin eta hitzarmen honetan helburu horretarako ezarritako aurrekontuarekin bat. Unibertsitateak, irakurlea kontratatu aurretik Etxepare Euskal Institutuari jakinaraziko dio, eta azken honek ados egon beharko du hautapenarekin, jarraitutako prozedurarekin, hautagai zerrendarekin eta aukeratzeko irizpideekin.

c) Euskararen ezagutza sustatzeko egokiak iruditzen zaizkion neurriak hartzea, ikuspegi akademikotik hori egin daitekeen neurrian, unibertsitatean ematen dituzten ikasketetan.

d) Atzerriko Hizkuntzen Zentroaren bidez, beharrezkoa den ekipamendua (ikasgela, ikastaroaren iragarpena programan, ordenadorea eta ahalik eta ondoen hornitutako lan-lekua) jarriko du irakasle bisitariaren esku. Hori guztia Fakultateak dituen baliabideen arabera egingo da.

e) Unibertsitatearen web orrian euskara eta euskal kulturako eskolen berri emango du eta ikastaro horiek Etxepare Euskal Institutuaren babesa dutela adieraziko du, Etxepare Euskal Institutuaren logoaren bidez, besteak beste.

II.- Etxepare Euskal Institutuak ondoko ekarpenak egiten jarraitzeko konpromisoa hartu du Proiektua egin ahal izateko:

a) Aholkularitza didaktikoa emango dio eta beharrezko material eta baliabide

c) Contratar al titular del lectorado como docente, según lo que dispongan sus estatutos y la legalidad vigente y de acuerdo al presupuesto establecido en este Convenio para ese fin. La Universidad, con carácter previo, la pondrá en conocimiento del Instituto Vasco Etxepare, que deberá estar de acuerdo con la selección, el procedimiento seguido, así como la relación de aspirantes y criterios determinantes de la selección.

c) Adoptar las medidas que considere oportunas tendentes a incorporar el conocimiento del euskera, en la medida de que ello fuera posible desde el punto de vista académico, en las diferentes carreras que se imparten o que se constituyan.

d) A través de su Centro de Lenguas Extranjeras pondrá a disposición del/a lector/a el equipamiento necesario (aula, anuncio de los cursos en el programa, acceso a un ordenador y un lugar de trabajo lo mejor provisto posible); todo ello en la medida de las posibilidades de la Facultad.

e) Anunciará en su página web las clases de lengua y cultura vasca y señalará que esas clases cuentan con el apoyo del Instituto Vasco Etxepare, con la inserción de su logo junto al anuncio entre otros detalles.

II.- El Instituto Vasco Etxepare asume el compromiso de continuar efectuando las siguientes aportaciones para el desarrollo del Proyecto:

a) Prestar asesoramiento didáctico y ceder el material y los recursos didácticos, lingüísticos y de interés

didaktiko, linguistiko eta kulturalak emango dizkio euskara irakurleari egin behar dituen jarduerak egiten laguntze aldera.

b) Diru-ekarpena egingo du irakurleen programa mantentzeko, Etxepare Euskal Institutuaren aurrekontuetan urtero era horretako jardueretarako aurreikusitako diru-izendapen egokien barruan.

Hitzarmen honen indarraldirako Etxepare Euskal Institutuak berrogeita bat mila eta hogeita hamar euroko (41.030 €) diru-ekarpena egingo du, honela banatuta:

2014 ikasturtea: 8.580 €
2015 ikasturtea: 9.570 €
2016 ikasturtea: 10.780 €
2017 ikasturtea: 12.100 €

Etxepare Euskal Institutuak Errepublikaren Unibertsitateari egin behar dion diru ekarpena honen arabera ordainduko da:

- 2014 ikasturterako urte horretarako aurreikusitako kopurua hitzarmena sinatu eta hilabete baino lehenago ordainduko da.
- Hurrengo urteetan urteko kopuruaren %100 azaroaren 30a baino lehen ordainduko da, betiere aurreko ikasturteko ekarpenak justifikatu ondoren.
- Ordainketa FHCE-Udelaren dagokion kontura transferentzia eginda gauzatuko da.

cultural necesarios para contribuir al desarrollo de la actividad docente que es necesario llevar a cabo por el lectorado de euskera.

d) Hacer la aportación económica necesaria para contribuir al mantenimiento del lectorado, dentro de las consignaciones presupuestarias conformes y adecuadas al destino del gasto que anualmente se prevean en los presupuestos del Instituto Vasco Etxepare.

Para el periodo de vigencia de este Convenio la aportación económica del Instituto Vasco Etxepare se establece en cuarenta y un mil treinta euros (41.030 €), distribuidos de la siguiente manera:

Curso 2014: 8.580 €
Curso 2015: 9.570 €
Curso 2016: 10.780 €
Curso 2017: 12.100 €

El pago de las cantidades correspondientes por parte del Instituto Vasco Etxepare a la Universidad de la República se hará de la siguiente manera:

- Para el año 2014, se pagará la totalidad de la anualidad dentro del plazo de un mes desde la suscripción del presente convenio.
- Para los años posteriores, el 100% de la anualidad se hará efectiva, antes del día 30 de noviembre, una vez rendidas las cuentas de las aportaciones del curso anterior.
- El pago se realizará mediante transferencia o depósito bancario en la cuenta de la FHCE-Udelar que se indique.

Urte bakoitzeko diru kopuruak ondoko xedea izango du:

	Urtea				
Xedea	**2014**	**2015**	**2016**	**2017**	**Total**
Irakurlearen soldata	7,200	8,100	9,200	10,400	34,900
Materialak eta funtzionamendu gastuak	600	600	600	600	2,400
Guztizko partziala	7,800	8,700	9,800	11,000	37,300
% 10 Overhead	780	870	980	1,100	3,730
Guztira	**8,580**	**9,570**	**10,780**	**12,100**	**41,030**

1. Irakurle postuaren titularrarentzat taulan ezarrita dagoen kopurua (zama sozialak, osasun asegurua, etab. barne)
2. 600 euro materialentzat (tonerra, papera) eta Errepublikaren Unibertsitateko Atzerriko Hizkuntzen Zentroaren funtzionamendu gastuentzat (euskararen irakaskuntzari dagokzionak).
3. %10 Overhead kontzeptuan.

Ordaindutako kopuruen justifikazioa honela egingo da:

- Justifikazioak 1) xedeari dagozkion kopuruenak izango dira, materialetara eta funtzionamendu gastuetara bideratutako 600 euroek ez dutelako dokumentazio bereizirik izango, Fakultateak kontzeptu horietarako egiten dituen gastu orokorretan sartzen dira eta. Hala ere, justifikazioan agertuko dira.

- 2014 urtetik aurrera, azaroaren 30a baino lehenago, Errepublikaren Unibertsitateak aurreko urtean atal bat gorago zehaztutako xedeetarako jasotako diru kopuruarekin gauzatutakoaren dokumentazioa bidali beharko dio.

La anualidad tendrá como destino:

	Año				
Destino	**2014**	**2015**	**2016**	**2017**	**Total**
Retribución del lector	7,200	8,100	9,200	10,400	34,900
Materiales y gastos de funcionamiento	600	600	600	600	2,400
Subtotal	7,800	8,700	9,800	11,000	37,300
10% Overhead	780	870	980	1,100	3,730
Total	**8,580**	**9,570**	**10,780**	**12,100**	**41,030**

1. La cantidad de euros establecida en el cuadro para la retribución del titular del lectorado (incluyen las cargas sociales, seguro de salud, etc.).
2. 600 euros para materiales (toner, papel, etc.) y sufragar los gastos de funcionamiento relativos a la enseñanza del euskera en la Universidad de la República.
3. 10% por concepto de Overhead;

La rendición de la anualidad recibida se realizará de la siguiente forma:

- La rendición se realizará por la totalidad de las cifras correspondientes al destino 1), ya que los 600 euros destinados a gastos de materiales y gastos de funcionamiento no tendrán documentación específica al integrar las compras genéricas que la Facultad realiza por estos conceptos, pero sí constarán en la rendición.
- Antes del 30 de noviembre de cada año a partir del 2014, la Universidad de la República deberá remitir la documentación correspondiente a la ejecución de la partida recibida el año anterior para los destinos especificados en el punto anterior.

Asimismo, el/a lector/a remitirá una breve memoria justificativa de las actividades

Era berean, irakurleak gauzatutako jardueren, ikasleen eta euren jarreraren txosten laburra bidaliko du, bere arduradun akademikoak sinatutako balorazioarekin batera.

Aipatutako ebaluazio txostenak aldekoa izan beharko du irakaslearen kontratua luzatu ahal izateko.

Txostena aurkakoa balitz, aipatu den kontratatzeko gehienezko epea agortu balitz, edo egokitzat joko balitz beste irakurleren bat kontratatzea aurretik kontratatuari kontratua luzatu beharrean, unibertsitatea hitzarmena sinatu duen instituzioarekin harremanetan jarriko da, betiere ikasturte berria hasi baino hiru hilabete lehenago, egin beharreko izapideak egin ditzan bidali behar den irakurlea bidali ahal izateko.

Dena dela, kontratua beti luzatu ahal izango da irakurlea aukeratzeko izapideekin amaitzeko behar den adina denboran, berari esleitutako hizkuntza eta kulturako ikastaroen jarraipena bermatu ahal izateko.

Etxepare Euskal Institutua izango da hitzarmen honen eta egindako ekarpenen erakunde kudeatzailea.

Laugarrena.- Irakurlea

Irakurleak honako baldintza hauen arabera bete beharko du bere lana:

a) Dokumentu honetan ezartzen zaizkion betebeharrak egiteko Errepublikako Unibertsitateak eskatzen duen titulazioa eta gaitasunak eduki beharko ditu. Horretarako, lizentziatuak edo goi-mailako tituludunak izan daitezke eta hizkuntzetan adituak. Hirugarren

desarrolladas, asistentes y nivel de aplicación, con una valoración de su actividad firmada por su responsable académico.

El informe de evaluación al que se ha hecho referencia deberá ser favorable para proceder a la prórroga del contrato del profesor o profesora.

En el supuesto de que el informe fuera desfavorable, se hubiera agotado el plazo máximo de contratación al que se ha hecho referencia, o razones de oportunidad hiciesen conveniente la contratación de otro/a lector/a en lugar de proceder a la prórroga de la persona contratada, la universidad se pondrá en contacto con la otra institución firmante del convenio, al menos tres meses antes del comienzo del nuevo año académico, al objeto de que proceda a realizar cuantos trámites sean precisos para la selección del profesor o profesora que se ha de enviar.

No obstante lo anterior, el contrato siempre será susceptible de prórroga por el período necesario para terminar con los trámites de selección del/a siguiente lector/a al objeto de garantizar en todo momento la continuidad en la docencia asignada al mismo.

El Instituto Vasco Etxepare será la dependencia gestora de este Convenio y de las aportaciones que efectúe.

Cuarta – El/a lector/a

Las personas que ejerzan los cometidos del Lectorado señalado desarrollarán su labor bajo los siguientes parámetros:

a) Deberán ostentar la titulación y competencias exigidas por la Universidad de la República para poder desempeñar los cometidos que le vienen asignados de conformidad a este documento. A tal efecto, podrán ser licenciados o titulados

zikloko ikasketak eta doktoretza egiten ari diren ikasleak lehenetsiko dira, hitzarmen honen helburuek zehazten dituzten jakintza arloen barruan.

superiores, especializados en lenguas. Se priorizará a aquellas personas que al inicio del lectorado estén realizando estudios de tercer ciclo y doctorado dentro de áreas de conocimiento acordes con los objetivos de este convenio.

b) Irakasleek bere egitekoari egokitutako obligazioak bete beharko ditu, baita Unibertsitateak berak egozten dizkionak ere. Era berean, trebakuntzarekin jarraitu ahal izango du.

b) Las personas que desempeñen el lectorado deberán cumplir las obligaciones que le correspondan de acuerdo con su función y demás obligaciones que indique la propia Universidad, y podrá continuar su formación.

c) Astean 20 eskola-ordu emango dituzte kurtso bakoitzeko Errepublikako Unibertsitateko Giza eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, dagozkion agintaritza akademikoekin bat etorrita.

c) Impartirán clases de euskera y cultura vasca en la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación de la Universidad de la República, por un total de 20 horas semanales por curso, de acuerdo con las autoridades académicas correspondientes.

d) Era berean, euskara eta euskal kultura sustatzeko eta zabaltzeko jarduera osagarriak bultzatuko dituzte.

d) Impulsarán actividades complementarias para promover y difundir el euskera y la cultura vasca.

e) Euskara eta Euskal Kulturako irakaslea izateak ez dakar inolako lan harremanik edo lotura administratiborik Etxepare Euskal Institutuarekin eta, ondorioz, Institutu honek ez du bere gain hartzen irakasleak unibertsitatearekin duen kontratutik eratorritako erantzukizunik, ez eta irakurlearen ekintzetatik eratorritakorik ere, batez ere bere eginkizunak betetzean eragin ditzakeen kalteei dagokienean.

e) La condición de docente de Estudios de Lengua y Cultura Vasca no implica ningún tipo de vinculación ni laboral ni administrativa con el Instituto Vasco Etxepare y, en consecuencia, este Instituto no asume ninguna responsabilidad derivada de la relación contractual del profesor o profesora con la universidad de adscripción ni derivada de su actuación, especialmente por los daños y perjuicios que puedan sobrevenir durante el desarrollo de sus funciones.

Bosgarrena.- Irakurlearen koordinazio akademikoa

Irakurlearen ardura akademikoa Atzerriko Hizkuntzen Zentroko zuzendaritzarena izango da.

Irakasleak eta zuzendaritzak elkarrekin egin beharko dute lan helburuak zehazteko eta programarekin lotutako erabakiak hartzeko. Zuzendaritzak irakaslearen aholkulari lanak

Quinta.- La coordinación académica del/a lector/a

La responsabilidad académica del/a lector/a recaerá en la dirección del Centro de Lenguas Extranjeras.

El/a lector/a y la dirección trabajarán conjuntamente para concretar los objetivos y tomar decisiones sobre el programa. La dirección actuará como mentora del profesor o

egingo ditu, azken honen irakasle lana aztertuko du eta behar diren oharrak egingo dizkio.
Atzerriko Hizkuntzen Zentroaren zuzendaritzak programa bat sortzera bultzatuko du irakaslea, non irakasteko filosofia, ikasketa planaren diseinua, helburuak, ikasgai motak, ikasleek egindako lanaren laginak (aukeratu izanaren arrazoiak azaltzen dituzten oharrekin) eta hausnarketa eztabaidaezinak sartuko diren. Zuzendaritzak garapen kurrikularrarekin, pedagogiarekin, materialen garapenarekin, berrikuntza teknologikoekin, klasea zuzentzearekin, probekin eta garapen profesionalarekin lotutako jarduerak zuzenduko ditu. Gainera, irakaslea eta unibertsitatearen artean bitarteko lanak egingo ditu.

profesora, analizará la docencia de este último y le indicará sus observaciones.

La dirección del Centro de Lenguas Extranjeras animará al profesor o profesora a crear un portafolio donde incluya su filosofía docente, diseño del plan de estudios, objetivos, tipos de lecciones, muestras del trabajo realizado por los estudiantes con notas que expongan los motivos de su selección, y reflexiones concluyentes. La dirección guiará las actividades relacionadas con el desarrollo curricular, la pedagogía, el desarrollo de los materiales, las innovaciones tecnológicas, la dirección de la clase, las pruebas y las actividades de desarrollo profesional. Además hará las tareas de intermediación entre el/a lector/a y la universidad.

Seigarrena.-Hitzarmenaren indarraldia

Hitzarmen honen indarraldia alde bakoitzak besteei dokumentua onartzeko zehazten diren formalitateak betetzen direla jakinarazten dienean hasiko da, eta 2014, 2015, 2016 eta 2017 ikasturteetan egongo da indarrean.

Sexta – Vigencia del convenio

Este Convenio entrará en vigencia una vez cumplida la comunicación que cada parte cursará a la otra de que fueron cumplidas las formalidades necesarias para su aprobación, y extenderá su vigencia a los cursos 2014, 2015, 2016 y 2017.

Zazpigarrena.- Iraungitzea.

Hitzartutako epea amaitzen denean iraungiko da hitzarmena. Horretaz gain, Etxepare Euskal Institutuak hitzarmen hau sinatzean bere gain hartutako konpromisoei aurre egiteko aurrekontu-baliabiderik ez izateagatik edo alderdietako edozeinek salatuta ere iraungi ahal izango da. Horretarako, amaitutzat jo baino gutxienez bi hilabete lehenago formalki jakinarazi beharko dio beste alderdiari.
Salaketak ez du eraginik izango burutzen ari diren programa eta proiektuetan.

Séptima.- Extinción.

Además de la extinción por el vencimiento del plazo convenido, el presente Convenio podrá resolverse por falta de disponibilidad presupuestaria por parte del Instituto Vasco Etxepare para hacer frente a las obligaciones asumidas mediante la firma de este convenio o por denuncia de cualquiera de las partes, que deberá ser comunicada formalmente a las otras comparecientes con una antelación mínima de dos meses a su efectividad. La denuncia no afectará los programas y proyectos en curso de ejecución.

Zortzigarrena.- Hitzarmena ez betetzea

Zehaztutako obligazioak edota beste xedapen batek orokorrean ezinbestekotzat ezartzen duen beste edozein baldintza Unibertsitateak bete ezean, Etxepare Euskal Institutuari itzuli

Octava.- Incumplimiento del Convenio

El incumplimiento de las obligaciones señaladas por parte de la Universidad, así como de cualquier otro supuesto de obligado cumplimiento por así establecerlo con carácter

beharko zaizkio jasotako dirua eta horren legezko korrituak.

Etxepare Euskal Institutuak zehaztutakoa betetzen ez badu, unibertsitateak hitzarmen hau salatu ahal izango du eta eskubidea izango du hitzarmen honetan salaketa eguna arte konprometituta dauden kopuruak jasotzeko.

Bederatzigarrena.- Hitzarmenaren erregimena eta interpretazioa.

Hitzarmen hau betetzerakoan sor litezkeen interpretazio- edo ezarpen-auziak negoziazio zuzenaren bidez konponduko dira. Egoki deritzonean, aldeetako edozeinek besteari hitzarmena aldatzeko eska diezaioke.

Hitzartutakoarekin adostasuna adierazteko, dokumentuaren bi ale berdin izenpetzen dira ondorio bakarrerako, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan (euskara eta gaztelania), eta goiburuan zehaztutako tokian eta egunean.

general otra disposición, implicará la obligación de devolver al Instituto Vasco Etxepare las aportaciones económicas recibidas y los intereses correspondientes.

En el caso de incumplimiento por parte del Instituto Vasco Etxepare, la Universidad podrá denunciar este convenio y de recibir las cantidades acordadas en el convenio hasta el día de la denuncia.

Novena.- Interpretación del Convenio

Toda diferencia que resulte de la interpretación o aplicación de este Convenio se solucionará por la vía de la negociación directa. En cualquier momento una parte podrá proponer a la otra su modificación.

En prueba de conformidad se suscriben dos ejemplares de este documento, de un mismo tenor y a un solo efecto, en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco (euskera y castellano), y en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

M. Aitzpea Goenaga Mendiola
Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria
Directora del Instituto Vasco Etxepare

Rodrigo Arocena
Errepublikako Unibertsitateko errektorea
Rector de la Universidad de la República

Dr. Alvaro Rico
Errepublikako Unibertsitateko Giza eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanoa
Decano de la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación de la Universidad de la República